

MENDI MUTILLA



I

Indartsu zure begiyetatik
saltatuzen da chingarka sua;
indar gogorrez dardaratzen da
ukabildu ta zure eskua;
burniz presta ta beldur gaberik
igarotzeko mendi goitsua,
¿Zer da gaur emen gertatzen dana?
¿Norazuaz zu orren sutua?

¿Ez aldakizu bearra dala
bostortzekoa zelai landetan?
zu gabetandik belardi charra
sortuko dala ibar ayetan?
¿Eta lajarrak zure echeko
gaisoak negar samintsueta...
¿Zer gertatzen da! ¿Zer da gaur
emen!
¿Nora zuaz zu modu orretan?

Zure eskuak botatutzen du
urrun, ailtzurra ordoiturikan,
artuaz zeñez trukadan burni
luze bat ondo zorrozturikan.
¿Itzultzen zera jaio echeko
jolas gozotsu ederretikan?
¡Loyal tristea! ¿Zuk zer echera
bilduko dezu gudetatikan?

Begiratua biurtu zazu
bizkar aldera izuz beterik,
ikusitzeko ama zurea
lurreratua penak botarik:
¡Kupi zaiten! ¡Entzun zayozu!
ez du desio ezer besterik;
ez da zerutik jaisten beretzat
zoriontasun gozoagorik.

¡Nekazariya! ¿Zer gorroto da
zure pechuan orla piztutzen?
¿Zer pentsamentu illunak zaitu
naskidatu ta orla sututzen?
¿Zer joan ezkerro dana galtzea
dala ezdezu jarren! ikusten?...
¿Zuaz laisterka! ezbazerade
malko oetaz kupiratzen.

¿Eta etzera konturatuko
choriyak ere deyan daudela
beren izkeran osto tartetik
erregutuaz etzuazela?
¿Zuaz utzirik arkaitz beltzeko
lora basoti ura bezela?
¡Nekazariya! mintza zaitea
nora zuazen, ¡nora orrela!

—Atzerrikoak mugak ausita
igaro dira gure lurrean
eta ausardiz datozi aurrera
su armatuak soñu gerrean.

Sorterriaren deya sartu zait
aiñ bizi eta aiñ indarrean,
sutu naiditut etsai gaistoak
jaio-erritik bota artean.

II

¡Ara! balaren chistu biziak;
¡Ara! sutunpen tunpadakoak;
Erituaren antsi larriyak,
Laguntza eske gizarajoak.
¿Ikusten? jorra! azken agurka
Pulunpatuaz odol putzuaz;
¡Ara! etsayak bikudatuka¹
Landetan eta mendi goitsuan.
Eraunsi nayan gure erriya
Lapurtu eta sutzeko dana,
Nola katamotz orrolariya
Saltatutzen dan basauntha gana...
¡Ai! eskudatu gabeko zarrik
Eta aingeru gaitzik gabeak...
¡Igarotzera gure ibarrak
Danak lirake burniz paseak!
Kupira gabe, danak segiran
Garaitzallien umill oinpean,
Nola loreak makurtzen diran
Ekaitz gogorrak zatitutzean.
Oñeztatuaz echeak gero

Urruindurikan lege santuak,
Aiñ gorrotoz ta aiñ gaistakiro
Lurreratu ta arrastatuak.
¡O! sorterriyen maitaerak dit
Indartu eta sutzen biyotza;
Bere oroitzak bakar bakarrik
Zabaldutzen nau pechuan poza.
Eta sututzen bere pozean
Apurtutzeko etsai goitiya,
Nola austen dan arkaitz beltzean
Itsaso arro orrolariya.
Igesko dira izuz beteak
Gelditzen bada iñor zutikan,
Nola itzultzen dan basaurdea
Eiz zakurren zangetatikan.
· · · · ·
¡Baña etsaya egiten bada
Fortunaz gure luraren jabe,
Milla bider ill obeago da
Ez gero bizi onrarik gabe!

III

Neregatikan asko egindu
hita zar leyal prestu maiteak,
Zor audi bat det irozotzeko²
Onoretsuen azken urteak.

Baña biyotza naiz penak bota
Jaio-echea onla uzteak;
Gaitzik gabeko aingeruchoak
Negar malkotan ikusitzeak;
Jolas gozoak, ordu legunak,
Choriyen deyak oroitutzeak...
Ez da egite miraritsua

(1) Desafiendo.
(2) Sostener,

Fedea piztu eta sutzeak,
 Zeña ordaintzen duen mugetan
 Dicha labur bat irabazteak....
 Ez dakit pozak edo damuak
 Nere begiyak malkoz beteak
 Illuntzen dira, arrats beltzean
 Nola izarrak diran gordeak.
 Ugeraldiya¹ ekaitz gaistora
 Golpez bezela saltatutzeak;
 Aize bultzadak bere bidean
 Arbol igarra zatitutzeak.
 Nere burua naskidatzen du
 Jaio-erriko mugak austea,
 Baña zerutik lagunduko nau
 Jaunak gordetzen nere usteak.
 ¡Ama nerea! ez negar egiriñ
 Eskatzen dizu zure semeak,
 Barrenkoi antsi triste orrekiñ
 Negartzen dira zar ta umeak!

¡Ama, ez galdu esperantzikan!
 ¡Ez geyagotu atsekabeak!...
 ¡Aita! musutzen laja nazazu
 Mancha gabeko urdin illeak;
 Azken laztan bat eman bear dit
 Nere betiko ongi gilleak.
 ¡Aita, estutu! biyotz berean!
 ¡Ama atozkit! ¡anai nereak!
 ¡Atozte nere pechu larrira
 Zorionaren ekartzalleak!
 ¡Onla! laztanka, bai bai onlase!
 ¡Berriz!... ¡geyago!... nere jabeak!
 ¡Estu!... ¡berriz!.. eziñ nezake
 Abek dirade azken tristeak.
 Abel; dirade goza beterik
 Gero aztutzen diran nekeak,
 Beren besoak zabaldutzean
 Libertadea eta pakeak.

VICTORIANO IRAOLA.

ORFEÓN DONOSTIARRA



La función que esta colectividad artística celebró el 15 del actual en el Teatro Principal estuvo favorecida por numerosa y escogida concurrencia.

En el programa aparecían los maestros Santesteban y Zabala, autores de verdadero renombre en la música euskara, y como vigorosa muestra de fieles continuadores suyos figuraron también hermosas partituras de los ya conocidos é inspirados señores Oñate y Zapirain.

En la primera parte fué muy aplaudida la orquesta en los característicos y populares bailables del *Pudente*, de Santesteban. El Orfeón

(1) Calma.